

IL AZALPEN PROBA • <i>Hirugarren gizona</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor *idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...*
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazen bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 250 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

*Polizi batzuek ohatila estali bat inguratzen zuten, poliki jaisten ari zirena elur zanpatuan irrist egiteko beldurrez. Gizonak honela esan zuen:*

*–Anbulantziek ez dute kale honetatik sartzetik, hondakinak direla eta. Etxe kantoiraino eraman behar dute.*

*Frau Koch segizioaren atzean zetorren; buruzapi bat jantzita zeraman eta saialezko beroki zahar bat. Bere gorputz astunak elurrezko panpina zirudien espalo bazterreko elur piloan hondoratu zenean. Esku bat luzatu zioten eta etsipenezko begirazun galdua egotzi zion inguruko ezezagun taldeari. Han lagunik bazen ere ez zituen ezagutu, aurpegi guztiei banan-banan begiratu arren. Bere aurretik pasatzean Martins makurtu egin zen zapataren lokarria haztatzerara, baina gora begiratzean begien parean topatu zuen Hansel txikiaren hotzak gorritutako gnomo begirada zorrotza.*

*Kalean behera Annarengana zihoala beste behin atzera begiratu zuen. Mutikoa aitari eskutik tiraka ari zitzaion eta ikus zezakeen nola ezpaineak “Aita, aita!” silabak biribiltzen zituzten aienezko balada baten errepikapena bailiran.*

*Annari esan zion:*

*–Koch hil dute, goazen hemendik!*

IL AZALPEN PROBA • <i>Hirugarren gizona</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 250 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

*Zerbait ezaguna zuen irudi hark. Beharbada, pentsatu zuen berari oharkabean ohitu naiz azkeneko hogeita lau ordu hauetan; beharbada, ibilerak maiz jarraitu ohi dizkidaten horietarikoa da. Martins han gelditu zen, hogeit metro tara, kale ilun hartan geldirik zegoen irudi isilari finko begira eta irudia, halaber, berari begira zegoen. Poliziako espia bat, beharbada, edota beste gizon horien agente bat, Harry aurrena gaitzitu eta gero hil zuten gizon horiena, ala hirugarren gizona ote zen?*

*Ez zen aurpegia ezagun zuena, masail hezurrari ere ezin bait zion antzik eman; mugimendua ere ez, gorputza hain geldi zegoenez, hura itzalak eragindako irudikeria bat zela sinesten hasita zegoen. Ozenki hotsegin zion:*

*–Zer nahi duzu?*

*Eta ez zen erantzunik egon. Berrito hotsegin zuen edanaren saminkortasunaz:*

*–Ezin duzu erantzun?*

*Eta erantzun bat etorri zen, zeren eta lo zegoen norbait itzarri eta leihoko gortinak zakarki zabaldu baitzuten, eta argiak kaleska meharra zeharkatu eta bete-betean argiztatu zuen Harry Limeren aurpegia.*

IL AZALPEN PROBA • <i>Hirugarren gizona</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 250 bat hitz; txukun eta marginak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

*Museo txiki bat gordea daukat idazmahaiaren kajoi batean eta Martinsi lagin batzuk erakutsi nizkion. Hizketaldia ez zitzaien Martinsi atsegin, baina esanguraz jabetu gabea zen oraindik. Honela esan zuen:*

*–Horrek, ustez, indargabe utziko du sendagaia.*

*–Hori besterik ez balitz! –esan nion–. Ez ginen horrenbeste kezkatuko, baina gogoan izan penizilinaren eraginak inmunizatu egiten dizula. Onenean ere esan dezakezu nahasketa hau erabiliz gaiso bat penizilinaz tratatzeak eraginik ez duela gerora begira. Ez da txantxetako gauza, noski, gaitz benereoren batek jota bazaude. Gainera, penizilina behar duen zauri baten gainean harea ipintzea ere... bada, ez da batere osasungarria. Modu horretan galdu dute gizon batzuek hanka bat edo beso bat edo bizia bera ere. Baina, beharbada, gehien hunkitu ninduen bertako haurren ospitalera egin nuen bisitaldia izan zen. Penizilina horretatik zerbait erositia zuten meningitisaren kontra erabiltzeko. Haur mordo bat hil egin zen eta kitto, baina beste mordo bat erotu egin zen. Adimen-gaisoen pabilioira joan eta hantxe ikusiko dituzu.*